



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

***GARDENTASUNAREN ALORREAN 2018AN  
EGINDAKO LANARI BURUZKO  
TXOSTENA - INFORMAZIO PUBLIKOA  
ESKURATZEKO ESKUBIDEA***

# Aurkibidea

1.- Sarrera .....	3
2.- Eskaera kopurua .....	3
3.- Eskabideen aurkezpena .....	4
4.- Eskaerak arloka .....	4
5.- Erantzuteko epeak.....	5
6.- Asebetetze inkestak.....	6

## 1. Sarrera

2018. urtean informazioa eskuratzeko eskaerak nola kudeatu diren aurkeztea da dokumentu honen helburua. Horren harira, jasotako datuak ebaluatu nahi dira eta ondorioak atera, hiritarrei eskaintzen diegun zerbitzua hobetzen eta garatzen jarraitu ahal izateko.

## 2. Eskaera kopurua

Pasatu den 2018. urtean, Zerbitzu honek informazio publikoa eskuratzeko 121 eskaera jaso ditu guztira. 2017. urtean izandako 86 eskaerekin alderatuz gero, hiritarren eskariak %40 igo direla ikus dezakegu.

Hilero batez beste 10 eskaera jaso ditu, beraz, Ermuko Udalak. Otsaila izan da hilabeterik oparoena, 16 eskaerarekin, eta jarraian, ekaina (15) eta uztaila (13). Urtero bezala, etenaldirik nabarmenena udan izan da, oporrekin batera, eta abuztuan bi eskaera baino ez dira erregistratu.




Azpimarratzekoa da, halaber, informazio publikoa eskuratzeko jaso diren 121 eskaeretatik 5 bertan behera utzi direla, jada erregistratuta eta bikoiztuta baitzeuden Udalak kudeatzen dituen espedienteetan. Beraz, Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun zerbitzuak guztira informazio publikoa eskuratzeko **116 espediente** izapidetu ditu.

Datu horiek aurreko urtekoekin (2017) konparatzen baditugu, hazkundera nabarmena da: 82 eskaeretatik 116ra. Argi ikusten da hiritarrek gero eta hobeto ezagutzen dituztela udal izapide ezberdinak, eta horiek erabiltzen dituztela euren intereserako informazio publikoa eskuratu ahal izateko.

### 3. Eskabideen aurkezpena

Hiritarrek bide ezberdinak dituzte informazio eskaerak burutu ahal izateko: posta arrunta, posta elektronikoa, egoitza elektronikoa eta, aurrez aurre, Abiapuntuko bulegoetan. Gainera, duela hilabete batzuetatik, Ermuko Udala ORVE plataforman erregistratuta dago, Erregistro Birtualeko Bulegoan, alegia. Horri esker, hiritarrek aurkezten dituzten dokumentuak digitalizatu eta elektronikoki euren helmugara bidali daitezke, edozein herri edo administrazio dela ere.

2018. urtean, eskabide gehienak Abiapuntu bulegoan bete eta aurkeztu dira (92), eta posta elektronikoa ere pertsona ugarik erabili dute (19). Gainontzeko eskabideak erregistro elektronikoaren (3) eta posta arruntaren (2) bidez jaso dira.



Eskatzailearen sexuari dagokionez, 63 gizonak eta 26 emakumek erabili dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Gainera, 17 enpresa pribatuk eta tokiko 10 elkarte edo taldek ere aurkeztu dituzte eskaerak Ermuko Udalean.

Bestalde, aipatzekoa da edozein pertsonak, edozein dela ere bere jatorri edo bizilekua, gauzatu dezakeela informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Ermuko Udalak jasotako eskabide gehienak, ohikoa eta zentzuzkoa denez, bertako hiritarren eskuetatik iritsi dira; 116 eskaritatik 97 (%87). Baina beste hainbat lekutatik ere jaso dira eskabideak: Eibar (8), Bilbo (3), Ondarroa (2), Donostia (2), Irun (1), Berriz (1), baita Oviedo (Asturias, 1) eta Vigotik ere (Galizia, 1).

### 4. Eskaerak arloka

Aipatutako 116 eskabideetan eskatzen den informazio motari erreparatzen badiogu, hiritarrak oso gai ezberdinetan interesatzen direla ohartuko gara. Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzua arduratzen da informazio eskaerak baloratzeaz eta, gaiaren arabera, erakundeko alor ezberdinetara bideratzeaz. Horrela, espediente

bakoitzaren administrazio izapidetzeaz arduratzen den pertsonak eskatzen den informazioa kudeatu eta hiritarren zalantzak argituko dituzten dokumentuak biltzen ditu.

Ermuko Udalari egindako galdera gehienak Hiria Alorrera bideratu dira; zehazki, Hirigintza Plangintza eta Kudeaketa (57) eta Hirigintzako Diziplina (34) sailetara.

Ondoko taulan ikus daitezke 116 eskaerak, sail edo zerbitzuka sailkatuta:

<b>Saila edo Zerbitzua</b>	<b>Kudeatutako eskaera kopurua</b>
Hirigintza Plangintza eta Kudeaketa	57
Hirigintzako diziplina	34
Gardentasuna	6
Abiapuntu	6
Hiritarren Segurtasuna	3
Idazkaritza	2
Gizarte Zerbitzuak	1
Udal Zerbitzuak eta Obrak	1
Diru-bilketa	1
Promosa	1
Berdintasuna	1
Kontratazioa	1
Alkatetza	1
Diruzaintza	1

Azpitarratzekoa da, era berean, orain arte ez direla bi eskaera berdin jaso; hau da, izapidetu den informazio eskari bakoitzak gai edo xehetasun ezberdinak landu ditu. Hori dela eta, Udal webgunean ezin izan da "Gehien eskatutako informazioa" gisako atala sortu, ez baita eskaerarik errepikatu eta bakoitza ezberdina izan delako.

## **5. Erantzuteko epeak**

Informazio publikoa eskuratzeko eskaera espedienteen izapidetzeak 30 eguneko legezko epea du hiritarren eskabideei erantzuna emateko. Zenbait eskaerak epe luzeagoa behar izaten dute informazioa modu egokian eta osatuan eman ahal izateko, baina helburu nagusia zehaztutako denboraren barruan aritzea da.

Ermuko Udaleko Hiritarren Partaidetza eta Gardentasun Zerbitzuak guztira jasotako 116 eskaeretatik 110ek erantzuna jaso dute alor ezberdinen eskutik: %95ak, alegia.

Orain arte erantzun ez diren eskabideak herritar batek eginak dira, eta Udal Idazkaritzak aztertu behar ditu.

Epeei dagokienez, erantzuteko batez besteko denbora 16,5 egunekoa izan da 2018. urtean. Erantzundako 110 eskaeretatik 91k, gainera, 30 eguneko epean jaso dute informazioa (%82,7).

## **6. Asebetetze inkestak**

Eskaera bakoitzaren jakinarazpenarekin eta erantzunarekin batera, interesdun pertsonen inkesta bat jaso dute, paperean nahiz online, jaso duten zerbitzua baloratu ahal izateko.

Inkesta anonimoa da; adina eta sexua soilik bete behar dira. 1etik 10era baloratu beharreko galdera sorta batek osatzen du galdetegia, eta inkestaren amaieran galdera ireki bati erantzuteko aukera dute interesdun pertsonen, euren kexa, iradokizun eta hobetzeko proposamenak jaso ahal izateko.

Ebaluazio sistema hori 2017ko otsailean jarri zen martxan, eta 2018. urtean zehar 15 erantzun jaso dira. 19 eta 60 urte arteko 9 gizonen eta 6 emakumen utzi dute euren iritzia proposatutako sei atalen inguruan.

Honakoak dira puntuatu beharreko atalak eta bakoitzean jasotako batez bestekoak:

1. *Eskaerak aurkezteko bide kopurua nahikoa da:* 10etik 8,69
2. *Izapidetzean jarraitu beharreko pausoak argiak eta errazak dira:* 10etik 8,46
3. *Eskaerari erantzuteko epea egokia da:* 10etik 7,83
4. *Emandako erantzuna eskaeran zehaztutako datuekin bat dator:* 10etik 8,33
5. *Zerbitzuaren balorazio orokorra:* 10etik 8,46
6. *Zerbitzuaren balorazioa beste erakunde publikoekin alderatuta:* 10etik 8